

Erljioa Nafarroako Foruetan (I)

El Reino de Navarra en su vida centenaria, soberana e independiente (825-1512) y en su desarrollo virreinal posterior (1512-1841), no pudo menos de tomar en cuenta la realidad de "reino cristiano"; es decir, de aquella unidad político-religiosa regida por criterios cristianos, que la Historia ha designado como "Cristiandad". Ese pasado de la Legislación navarra es rica en textos que así lo atestiguan.

Nafarroako Erreinua, Iruñeko Erreinetik jaioa zen (824), eta batez ere Al-Andalus-ko lurraldeari eskualdeak irabaziz garatu zen gero, aldi bertsuan Pirinioetan ere zabaltzen zela. Penintsulako Erreinu kristau gazteetako bat izan zen Nafarroa, eta botere zibilak eta eliztarrak elkarlanean moldatu zituzten gizartea eta Erakundeak.

Iturrien bila

Erreinuak bizitza eliztarra (eliza barruko zeregin espiritualak, bereziki) Elizaren beraren eskumenetan egon zen, noski, eta horretarako Elizaren Zuzenbide Kanonikoa izan zen arautegi nagusia. Koroak eta Erreinuak Erakunde zibilek (Gorteak, adibidez) ez zuten bizitza eliztarrean eskurik. Hori, oro har.

Hala ere, gizarteak berak kristau nahi zuen izan, hau da, kristautasunak eskatzen zizkion irizpide kristauen araberako bizimodua antolatuta eta eraman. Horretarako, ordea, ohitura eta lege kristauak behar zituen baita bere lege zibiletan ere; horregatik, ugariak dira Nafarroako legeria publikoan Elizari buruz eta herritarren burubide kristauaz diharduten lege-arauak.

Modu horretako arau kristauak agintari eta Erakunde ezberdinetatik etor zitezkeen: herriak berak sortutako usadiozko arauak zeuden jatorrian, Errege eta bere Kontseiluak

emandako arauak gero, Erreinuak Gorteetatik zetozenak ondoren (Legebiltzarretakoak, alegia); baze-uden Lege orokorrak, eta herri jakinetako Kontzejuak emandakoak (batzuetan balio oro-korragoa irabazten zutenak), edo betidaniko ohitura ezagun eta zabaldu baten indarrez epaitegietan edo paper ofizialetan aitortuak.

Bazeuden, gainera, Santiago Bide inguruko franko etorri berrien auzoetarako Erregeak emandako Foru bereziak; jatorrizko nafarrei emandakoen ondoan haiek ere beren pisua izan zuten, Foru Orokorra izango zena osatuz joateko. Horrelako bide guztiek balio izan zuten gizarteko kristautasuna indartzeko, "Kristanda-de" gizartea baitzen hura.

Nafarroako Foru Orokorra, lehenik ere eginez zetorrenak, indar idatzi berria eta eratuagoa hartu zuen XIII. mendetik aurrera, gizarteko eraginak sustaturik, Gorteetan eztabaidatu eta onartuta, azken buruan Erregeek beren baiezkora eta erabakia emanda.

Nabaria da kristau bizierarekiko eta Eliz Erakundearekiko ardura Erreinuak sortu ziren ehunka Lege eta Arauetan. Berrikitan, Nafarroako testu historiko-juridiko esanahitsuenak biltzen dituen obra mardula dugu eskueran (bi liburuki: Monreal eta Jimenorena).



Foru Orokorra (XIII-XIX. mendeak)

Erreinuko Erakunde eta Lege orokorretan erlijio-gaiak izan zuen funtsezko balioa ongi-en ispilatzen duen testu juridikoa da Foru Oro-korrekoa, Erreinu osorako arautegia izan bai-tzen bera eta finkotasun tinkoena eta segida historiko luzeena izan zituen.

Foru Orokorren lehen argitalpen inprimatuak Aro modernoko ditugu (Pasquier 1566, Chavier 1686, Elizondo 1735), baina bien bitartean baditugu eskuizkributan emandako Foru-Bildumak, adituentzat eta epaitegietan erabilgarri izan zitezen moldatuak. Berorietan ere presente daude beti erlijio-gaiak.

Kargudun berrien ardura politikoak bakoitzaren kristau-kontzientziaren bizipenarekin loturik ageri zaizkigu: Erregeak Koroa hartzean (zeremonia ederra zegoen horretarako), Gorte-etako ordezkariak biltzarrean sartzean, izenda-tuek Diputazioko karguak hartzean, herrietako kontzejukide edo zinegotziek zeregin ofizialak eskuratzean eta abarretan hautatuaren prome-sen sinesgarritasuna segurtatzeko hitz hutsak ez zuen balio, beti Jainkoaren aurreko jura-mentua eskatzen zitzaion kargudun berriari.

Bizitza sozialarekin zerikusi zuzenagoa izan zezaketen eliz egitekoak ere aintzotzat har-tzen zituen Foru Orokorrak: Mezetarako deiak, hiribilduetako Abadea nor izan zitekeen, hiribil-dutarra apaiz nola egin zitekeen, hamarrenak nola bildu behar ziren, monasterioen mendeko bizilagunen bizitza edo ondasunen saltzeaz, monasterioen zenbait arazo ekonomikoz, erromesen segurtasunaz:

horretaz guztiaz esan zuen zerbait Foruak. Kezka berezia ageri da Foruan, monasterioen eta monjeen eskubide eta erantzukizun ekonomikoez.

Herritarren burubide moralaz zuzenean arduratu zen Forua, betiere Elizak berretsitako arauak zaintzeko asmoarekin: oro har, jabetasunari buruzko jokabidea ongi zaindu nahi zen, klase sozial ezberdinetako emakume bortxa-tuak gogoan hartzen ziren, baita nolabaiteko bizitza zeramaten alargunak ere. Zigor-kodeak bortxaz eta herritar-mota ezberdinei egindako kalte eta zauriak banan-banan zigortzen zituen. Indarraz baliatuta kargu-jabetasuna eskuratu nahi zuten klerikoak zigortuta zeuden.

Ikusiko dugunaren arabera, Foru Orokorrak ez zituen agortu, ordea, bizitza erlijiosoarekiko Lege nafarren azalpenak, bestelako hamaikatxo agiritan ikus daitekeenez

Joseba Intxausti

Yanguas y Miranda, J., 1964 [1840], *Diccionario de antigüedades del reino de Navarra*. Pamplona: Diputación Foral de Navarra.

Elizondo, Joaquín de, 1964, [1735], *Novísima recopilación de las leyes del reino de Navarra hechas en sus Cortes Generales desde el año de 1512 hasta el de 1716 inclusive*. Pamplona: Editorial Aranzadi/Diputación Foral de Navarra.

Monreal Zia, G.; Jimeno Aranguren, R., 2008-2011, *Textos histórico-jurídicos navarros. I. Historia antigua y medieval. II. Historia moderna*. Pamplona: Gobierno de Navarra.

Kristandadearen Erdi Aroko ideia, kontzeptu eta praxia ezagutzeko begira: dadun.unav.edu/bitstream/10171/14295/1/ICXI2212.pdf